



Arartekoaren ebazpena, 2011ko abuztuaren 24koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari gomendatzen zaio eraginik gabe utz ditzala Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarriaren etetea eta forma akats larriengatik behar ez bezala eskuratutako kopuruak itzuli beharragatik sortutako zorra.

Aurrekariak

1. Kexagileak Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarria jasotzen du. Prestazio hori 2010eko azaroaren 23ko ebazpen baten bitartez eten zitzaion, eskatu zitzaion unean alokairua ordaindu izanaren ziurtagiriak ez aurkezteagatik. Etetea atzera eraman zen 2010eko urtarrilaren 1era eta, ondorioz, behar ez bezala kobratutako zenbatekoengatik 2.500 euroko zorra sortu zen.
2. Kexagilearen kexaren arrazoia da Arabako Foru Aldundiak ez ziola jakinarazi bere etxebizitzako alokairuaren ordainagiriak San Antonio kaleko 10. zenbakiko Gizarte Prestazioei buruzko Informazio eta Izapidetze Udal Bulegoan aurkeztu behar zirela. Prestazioaren emate-ebazpena jakinarazteko idazkian adierazitako jarraibideei jarraituz (eta Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarriaren 2/2010 Dekretuko 19.1. artikulua xedatzen duenaren arabera), bere oinarrizko gizarte zerbitzura jo zuen aipatutako agiriak aurkezteko. Bertan, jakinarazi zitzaion izapidetzeko moduan egondako aldaketa bat zela-eta, ordainagiri horiek beste leku batean aurkeztu behar zirela eta garaiz jakinaraziko zitzaiola. Jakinarazpen hori jaso beharrean, azaroaren 23ko ebazpen idazkia jaso zuen; haren bidez prestazioa eten zitzaiola eta 2.500 euroko zorra sortu zela jakinarazi zitzaion.
3. Horri buruzko informazio eskaera egin ostean, Arabako Foru Aldundiak honako hau erantzun zigun *"presenta con fecha 2 de diciembre de 2010, los recibos justificativos del pago de alquiler relativos a los meses de julio a diciembre de 2010 sin que conste que se han presentado los correspondientes al primer semestre de dicho año, por lo que dado que Dña. XX no ha justificado los gastos relativos a la ayuda percibida, en aplicación de la normativa vigente se suspende el abono de dicha prestación, con fecha de efectos 01/01/2010, puesto que no ha justificado los recibos del primer semestre"*.
4. Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarriari buruzko 2/2010 Dekretuaren IV. kapituluan bildutako artikuluei jarraiki, modu okerrean jasotako zenbatekoak eskatzeko jarraitutako izapidetxei dagokienez, Arabako Foru Aldundiak ez zuen inolako aipamenik egin.





Gogoetak

1. Etxebizitzako gastuen ordainagiriak aurkezteko behar hori dekretuko 19.1. artikulua xedatzen du: *“Emate-ebazpenari dagokionez, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren titularrak sei hilean behin ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren alokairu-gastuen frogagiriak udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuari aurkeztu beharra ezarriko da. Frogagiri horiek ordainagiri pribatuak, fakturak, edo banku-ordainketako frogagiriak izan daitezke”.*

Kexagileak ordainagiri guztiak aurkeztu dituela baieztatu badu ere (Arabako Foru Aldundiak erakunde honi jakinarazi dionari jarraiki, ez dago aurkeztutako dokumentazioaren egiaztagiriak emateko ohiturarik), eta foru erakundeak soilik bigarren sei hilabetekoari dagozkionak aurkeztu zituela esaten badu ere (hala aipatzen da aurrekarien 3. puntuan transkribatutako testuan), etetea 2011ko otsailera arte mantendu da, beraz, 2010eko urtarriletik urrira zorra sortu da modu okerrean jasotako zenbatekoak direla-eta. Hala, gure ustez, modu okerrean jasotako zenbatekoen itzultzea eskatzeko arrazoiren bat egotekotan, foru erakundearen erantzunarekin bat eginez, justifikatu gabeko denboraldiari mugatu beharko litzateke (hau da, 2010eko lehenengo sei hilabetea).

Esku artean dugun kasuaren inguruan egindako informazio eskaeraren bitartez, Arabako Foru Aldundiari jakinarazi zitzaion moduan: *“...alokairuen ordainagiriak ematea ez dela etxebizitzako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea izateko funtsezko baldintza, eginbeharra betetzen dela (alokairua ordaindu egiten dela) egiaztatzeko frogabidea baizik. Erreklamatzailak ordainagiriak aurkeztu baditu prestazioa kendu ondoren, bere garaian alokairuak ordaindu zituelako izango da. 18/2008 Legearen 41.2. artikulua aipatzen du alokairuak ordaindu ezean diru-laguntza ken daitekeela, baina gure ustez, laguntza bertan behera utzi aurretik interesdunari frogak aurkezteko aukera emateko bidezko izapideak egin ondoren egin daitekeela esan nahi du; aipatutako artikulua ez du zigortzen ordainagiriak epe jakin batean ez aurkeztea, inolako ordainagiririk ez aurkeztea baizik, horrek iruzurra egon daitekeela susmarazi baitezake. Erakunde honen iritziz, egin eginda dagoen ordainketa baten ordainagiriak garaiz aurkeztu ez direlako etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea urtebete eta hilabetez etetea 41.2. artikulua haraindi doan interpretazioa egitea da, eta gure aburuz, hori kontraesanean dago 18/2008 Legearen muinarekin”.*

2. Hain zuzen ere, entzuteko izapiderik ere ez zen bete, eta haren bidez kexagileak alokairuen ordainagiriak aurkeztu ahal zituzkeen, modu horretan etetea saihestuz. Arabako Foru Aldundiak emandako erantzunean jasotakoaren arabera, ordainagiri horiek eteteko ebazpena irmoa izan ostean soilik onartu ziren, eta abenduaren 2an espedientearen sartu ziren.

Kasu honetan horri buruzko berariazko informazio eskaerarik bidali ez zen arren, argi dago entzuteko izapidea burutzeko eginbeharra betez gero, 2/2010 Dekretuaren 31.2. artikuluko legeko xedapenak betetzea alde batera utzita: *“Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria jasotzeko eskubidea aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura hasitakoan, ofiziozko prozedura bat bada, hasiera eman zaiola jakinaraziko zaio titularrari adieraziriko bizilekura igorrita, eta baita ere prozedurak oinarri dituen arrazoiak eta izan ditzakeen ondorio ekonomikoak –[33. artikuluan](#) ezarritako epean berariazko ebazpenari ezak eragindakoak–, eta ebatzi eta jakinarazteko epea eta administrazioaren isiltasunaren ondorioak, eta horiek guztia interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten”,* kexagileak ordainagiriak aurkezteko aukera edukiko zuela aldundiaren ebazpena irmoa izan aurretik geldituz.

Halaber, garrantzitsua da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen xedapenak kontuan hartzea. 84. artikulua 1. eta 2. ataletan ezartzen da *“Prozedurak bideratu ondoren, eta ebazpen proposamena idatzi aurretik, interesdunei edo, dagokionean, beren ordezkariari prozeduren berri emango zaie, betiere, [37.5. artikuluan](#) jasotako informazioak eta datuak salbuetsiz”*. Prozedurak bideratu ondoren, eta ebazpenproposamena idatzi aurretik, interesdunei edo, dagokionean, beren ordezkariari prozeduren berri emango zaie, beti ere, *37.5. artikuluan jasotako informazioak eta datuak salbuetsiz. Interesdunek gehienez hamabost egun dituzte eta gutxienez hamar, egoki irizten dieten dokumentu eta egiaztapenak alegatzeko*. Beraz, hori guztia dela-eta, uste dugu 30/1992 Legearen 62.1.e artikulua aplikatu behar litzatekeela: *“1. Erabat deusezak izango dira herri-administrazioen egintzak baldin eta(...)Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman badira”*.

3. Bestalde, prestazioa eteteko ebazpena jakinarazten duen idazki beraren bidez eman zen zorra sortu izanaren berri. Eta horri buruzko informazio eskaerari emandako erantzunean ez ziren helburu horrekin egin ziren izapideak aipatu. Horrela, ez zen ezer aipatu 2/2010 Dekretuko IV. kapituluak behar ez bezala jasotako zenbatekoak kobratzeko xedatzen duen prozedurari buruz.

Beraz, erakunde honen ustez, horri ere 30/92 Legeko 62.1.e artikulua aplikatu behar litzaioke.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:



41/2011 GOMENDIOA, abuztuaren 24koa, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari egina

Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarriaren etetea baliorik gabe utz dezala eta, ondorioz, etenda egon den bitartean jaso ez duen zenbatekoa kobratzeko eskubidea onar diezaiola.

Behar ez zirela jasotako zenbatekoak kobratzeak sortutako zorra baliorik gabe utz dezala eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentagatik jasotzen duen zenbatekotik kenduz ordainarazi zaion zenbatekoa itzul diezaiola.

